

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Funtsezko jarduerak beharrezkoak dira balorezko proposamena garatzeko, bezeroengana iristeko, haiekin harremanetan jartzeko eta diru-sarrerak lortzeko.

Funtsezko jardueren barnean hiru mota bereizten dira:

- Produksioa
- Bezeroen arazoak konpontzeko zerbitzuak
- Plataformako edo sareko jarduerak

Gure enpresari begira esan genezake gehien bat interneten oinarritzen dela, hau da Webgunea gure negozioaren ardatza dela. Beraz, sareko jarduera bat aurrera eramaten dugu eta plataformaren gestioaz, etengabeko mantenuaz eta plataformaren promozionatzeaz arduratzen gara.

Bestalde, gure enpresaren funtsezko jarduera pizzatoremak ekoiztea da, hori izango litzateke gure produkzioa.